

MUSIKA Elkar disketeak kantautorearenaz gain, Duhalderen diska eta trikitixaren bilduma kaleratu ditu

Mikel Laboa anitz urtez

Azken lana borobila atera zaio

P.PELLEJERO Iruñea Duela guti egin zuen bere azken diskaren aurkezpena Donostián, zarata handirik sortu gabe, hogeita hamar urtez grabatzen eta tauletan aritzeak lotsa emanen balio bezala. Hamalagarrena da, 14 izenburukoa, hamar kantuek osaturik, hamaika lautadez horniturik. Hirurogei urteko Mikel Laboa honek ez du amore eman, bere nortasunari eutsi dio beti (nola ez, ba), melankonia, herriaren gogoia eta olerkiari berari abestuz. Hamalagarren diska hau borobil horietakoa ez bada, oso hurbil dago.

Omenaldiak

Kantu berrien artean, Camaron de la Isla eta John Cage-ren omenez egindako *Mugak* (Lekeitio 9) abestiak aipamen berezia merezi du. Ia hamaika minutuko kantu honetan, esan nahi gabeko hitzak erabiliz, betiko Laboaren musika, txalaparta, flamenko eta jazz nahasi eta ahotsa bere bihotzetik gainerakoen bihotzeruntz abiatzen da. Harrigarria da noraino heltzen den Laboaren sentimendua Camaronen oroimean.

Ezin utzi aipatu gabe hitzen garrantzia, Joseba Sarrionaindiak sortutakoak, batipat: *Hegazti errariak*, *Nao es tu, facultade de sentir* (portugesez eginda eta kantatua), *Oroitzen zaitudanean, ama* eta *Gure oroitzapenak*. Halaber, Katalunyan omenaldian lan ederra egin du Laboak Salvador Espriuren *Assentiré de grat* abestia musikatuz. Hortaz, guztiz txaloagarria da Elkar disketeak karrikaratu duen Laboaren azken diska hau.

Laboraren lanaz landara, Elkar disketeak Anje Duhalderen *Su gainean dantzan* diska eta *Betiko trikitixa* egile anitzen bilduma karrikaratu berri ditu.

Iazko zuzeneko bilduma egin ondoren, Duhaldek 12 kantu berriein osatu du bere azken lana. Ohitura duen moduan lapurtarra

BIKOTEA

■ Iñaki Salvador


Mikel Laboak Iñaki Savador ezagutu zuenetik hamar urte bete dira jadanik. Ordudanik elkarrekin lan egin dute. Diska honetan kanta guztietan kolaboratzeaz gain, Salvadorrek *Baga, Biga, higa* abestiaren bertso instrumentalarekin egin du.

goi mailako musikoaz inguratu da oraingoan ere: Angel Unzu, Mikel Irazoki, Jimmi Arrabit eta Bixente Iriart. Halaber, *Su gainean dantzan* diskan beste batzuk ere aritu dira lanean, hala nola Xabier Amuriza, Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu, Aitor Gorosabel, Batiz, Edu Cruz eta Joxan Gokoetxea.

Garai bateko trikitilariak

Bestalde, *Betiko Trikitixa* konpaktoan Elkarrek garai bateko trikitilarien estiloa berreskuratu nahi izan du. Izan ere, azken urteotan iraultza eta berrikuntza handiak egin dira trikitixa munduan.

Lan hau burutzeko aspaldian jotzeari utzitako bikote batzuk eta oraindik kalez kale dabiltzanak elkartu eta beren errepertorioko pieza adierazgarrienak jo dituzte. Hamar bikote dira guztira diskan parte hartu dutenak: Anuntxa eta Boni, Laja eta Landakanda, Martin eta Egañazpi, Sakabi eta Egañazpi, Tapia eta Leturia, Maltzeta aita-alabak, Epelde eta Iturbide, Zumarragako Trikitixa, Astiasaran anaiak eta Rufino Arriola eta Txetxu Urrutia. Produktore lanean Kepa Junkera bilbotarra aritua da, trikitixaren berritzaile nagisuetako bat.



Goian, Laboaren diskaren azala. Lan hau benetan ederra da. Erdian, Duhaldek atera berri duen diska. Behean, *Betiko trikitixa*.